

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udalaren Kirol Instalazioak erabiltzeko Erregelamendua. Behin betiko onarpena

2020ko azaroaren 30ean hasierako izaeraz onetsi zen ohiko Osoko Bilkuran, Audio Udalaren Kirol Instalazioak erabiltzeko Erregelamendua. Hasierako onespren hori dagokion iragarkia 2020ko abenduaren 11 eguneko ALHAOn, 141 zenbakia duenean argitaratu zen, baita Udaletxeko iragarkien taulan ere, eta hogeita hamar egun balioduneko epean jendaurreko informazio-epea hasi zen, alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Erregelamenduzko testu hori jendaurrean ikusgai egon den aldian, Alzarrate Kirol Elkarateak alegazio bat aurkeztu du.

2021eko martxoaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zen Alzarrate Kirol Elkarateak aurkeztutako alegazioa ezestea eta Audioko Udalaren Kirol Instalazioen Erabilera Araudia behin betiko onartzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua eta 70. artikulua 2. paragrafoan adierazitakoa betez, Audioko Udalaren Kirol Instalazioen Erabilera Araudia osorik argitaratuko da ALHAOn, eta ez da indarrean jarriko harik eta osorik argitaratu arte eta lege-testu beraren 65,2 artikuluan aurreikusitako hamabost eguneko epea igaro arte. Honela geratuko da idatzita:

LAUDIO UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ERREGELAMENDUA

HITZAURREA

Edozein pertsonak egin nahi dituen jolas-jarduera fisikoak eta, oro har, kirolak babestu, sustatu eta garatzea da Audio Udaleko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuaren xede nagusia.

Udalaren kirol instalazioak dira kirolak, jolas jarduerak eta, oro har, kultura fisikoa praktikatze xedea duten udal eraikin, zelai, esparru eta egoitza guztiak. Halaber, kirol instalazio gisa hartuko dira horretarako erabiltzen diren gainerako higiezinak eta modu egonkorrean Udalaren kirol instalazioen batera atxikitakoak.

Udalaren kirol instalazioen ezaugarriak aipatutako xede eta helburuekin bat datoz. Horrengatik oinarritu behar dira jarraian agertzen diren hatsarre orokorretan instalazioen prestazioak eta arautze praktikoa, Estatutuen bidez:

- Izaera nabarmenki herrikoia.
- Benetako promozio soziala.
- Irabazi-asmorik ez, baina autofinantzatzeko joera dute.
- Hezkuntza-, kultura-, irakaste- edota asistentzia-helburuak.
- Instalazioetan praktika daitezkeen ahalik eta kirol espezialitate gehien praktikatzeko aukera ematea.

Udalaren kirol instalazioak jende guztiarentzat irekita egongo dira, eta, beraz, edozein herritarrek aukera izango du horietan sartu eta horiek erabiltzeko, betiere, indarrean dagoen arautegia errespetatuta, dagokion udal tasa edo prezio publikoa ordainduta eta kasuan kasuko betebeharrak beteta.

Instalazio bakoitza bereziki prestatu den kirolak praktikatzeko erabiliko da. Beste kirol batzuk ere egin ahalko dira, betiere, teknikoki posiblea bada eta Udalak esanbidezko baimena eman ostean.

Udalaren kirol instalazioak eskolako kirol hezitzaileerako nahiz aisialdiko kirolerako erabili ahalko dira, baita izaera sozialeko jarduerarako, betiere, kasuan kasurako ezartzen diren betekizunak betetzen badira.

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Objektua

1. Erregelamendu honen objektua da erabiltzaileek Laudio Udalaren instalazioak eta gainerako kirol zerbitzuak erabiltzeko bete beharko dituzten baldintzak ezartzea eta haien eskubideak eta betebeharrak zehaztea.

2. Laudio Udalak beretzat gorde du erregelamendu hau argitu, aldatu edota garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea instalazioak behar bezala erabil daitezzen, bertako langileen argibideak eta oharrak gorapenera.

3. Erregelamendu hau eta kasuan kasuko araudi espezifikoak (ordutegiak, prezio publikoak, etab.,) herritarren esku egongo dira.

BIGARREN TITULUA. ERABILTZAILEEZ

2. Artikulua. Erabiltzaile motak

Erregelamendu honek eraentzen dituen instalazioak erabiltzeko eskubidea dute pertsona fisikoek, ikastetxeek, kirol elkarte nahiz klubek eta helburuen artean kirola sustatzea duten bestelako erakundeek, betiere, horietan sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, eta izaera puntualaz, kirolez besteko erabilera eman ahalko zaie, kasuan kasuko betekizunak betetzen badira.

3. Artikulua. Abonatuak

1. Abonatu izan ahalko dira eskaera egiten duten eta horretarako betekizunak onartu eta betetzen dituzten pertsona guztiak (Laudion bizi ala ez), bereziki, filiazioaren, datu-pertsonalen eta legez ezarritako tasa edo prezio publikoen inguruko betekizunak.

2. Abonatuak libreki sartu ahalko dira Udalaren kirol instalazioetan, eta, horrez gain, prezio murriztuak izango dituzte instalazioak alokatzeko nahiz Laudio Udalak antolatzen dituen jardueretan parte hartzeko.

3. Oro har, abonatu mota desberdinak egon ahalko dira (familiakoak, banakakoak, arruntak, konbinatuak, urtekoak, seihilekoak, hilekoak, etab.) eta dagozkien ordenantza fiskaletan esanbidez arautuko dira horien onurak, ezaugarriak eta prestazioak.

4. Laudio Udalak beretzat gorde du organo eskumendunaren bidez abonatuaren kopurua mugatzeko eskubidea.

5. Abonatu txartela da abonatu izaera egiaztatzeko baliozko dokumentu bakarra eta nahitaezkoa izango da txartela erabiltzea kasuan kasuko instalazioetan sartzeko. Nolanahi ere, Laudio Udalaren zerbitzura diharduten langileek aukera izango dute edozein unetan txartela eta dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztatzea eskatzeko instalazioetara sartu aurretik.

6. Txartela pertsonala eta besterenezina da. Titularra ez den beste pertsona batek erabiltzen badu, bi hilabetez kenduko zaio titularrari, eta ez du eskubiderik izango Udalak inongo diru zenbatekorik itzultzeko. Iruzurrezko erabilera hori errepikatzen bada, arau-hauste larritzat joko da eta dagokion zehapena ipiniko da.

7. Txartela galdu edo erabilezin geratuz gero, berehala jakinarazi beharko zaio Laudio Udalari. Udalak txartel berria jaulkiko du orduan, legean zehaztutako tasa ordaindu ostean.

8. Abonuaren prezio publikoa edo tasa Laudio Udalak horretarako zehazten dituen bideak eta kanalak erabilita ordainduko da.

9. Urteko abonua duten pertsonak abonatu izateari utzi nahi badiote, horren berri eman beharko diote Udalari, gutxienez, abonua indarraldia bukatu baino 15 egun natural lehenago, udal instalazioetara joanda, edo posta elektronikoz.

Baldintza horietakoren bat ez bada betetzen (borondate-aitorpena edota beharrezko aurretia), automatikoki berrituko da txartela.

10. Abonuaren kuotari dagozkion ordainagiriak itzultzen badira, zehazten den moduan eta epean ordaindu beharko dira. Ordainketa ez bada emandako epean egiten, txartelei baja emango zaie automatikoki. Baja hori bere horretan geratuko da dagokion zenbatekoa ordaindu arte.

4. Artikulua. Beste erabiltzaileez

1. Halaber, abonatuak ez diren pertsonak ere kirol-instalazioak erabili edo kirol programako kirol-jardueretan parte hartu ahalko dute.

Horretarako, instalazioetara sartu aurretik eta bertako zerbitzuak erabili aurretik, beharrezko prezio publikoa ordaindu beharko dute.

2. Laudio Udalak instalazioak puntualki edo aldirako erabiltzeko kuotak zehaztuko ditu eskumena duen organoaren bidez. Kuota hori balioko duen sarrera ordaindu ostean, erabiltzaileak abonatuak bezala erabili ahalko ditu instalazioak, betiere, erabilera arau orokorrak beteta.

3. Laudio Udalak aukera izango du instalazio zehatz batzuetarako erabiltzaile mota desberdinak bereizteko.

5. Artikulua. Kirol elkarte eta klubak

1. Udalaren kirol instalazioen erabiltzaile-kolektibo potentzial gisa hartuko dira kirol elkarte, tokiko klub eta federazioak, betiere, legez eratuak badaude.

2. Aurreko puntuaren ondoretarako, kirol federazio, elkarte edo klubak legalki eratutzat joko da euren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren Kirolen Zuzendaritza Nagusiak onartuak dituztenean eta, gainera, Laudio Udaleko edo egoitza soziala duten udalerriko elkarten erregistroan inskribatuak daudenean.

3. Aurreko betekizunak betetzen dituzten elkarte, tokiko kirol klub eta federazioek Udalaren kirol instalazioak erabili ahalko dituzte euren jardueretarako esanbidez zehazten zaizkien ordutegi eta egutegiak kontuan hartuta.

Edonola ere, entrenamendu eta lehiaketa ofizialen ordutegiak kirol instalazioetako ordutegi orokorretara egokitu beharko dira.

4. Laudio Udalak banatuko ditu kirol instalazioen erabilera orduak, behin interesa duten elkarten, klubaren eta federazioen behar guztiak kontuan hartuta, eta kirol denboraldiak dirauen bitartean balioko dute, edo, nolana ere, horretarako bidaliko den udal komunikazioan adierazitako denboran.

5. Laudio Udalak bertan behera utzi ahalko ditu lehenago aipatutako instalazioen erabilera-emakidak, lehentasunezkoztat jotzen dituen beste erabilera batzuk emateko, betiere, aldaketa horiek justifikatuta eta alderdi interesdunei alde aurretik horren berri emanda.

6. Kirol elkarte, federazio eta klubek antolatutako kirol ekitaldien erantzukizun zibila beraiena izango da, entrenamendu saioak barne. Ondore horretarako, dagokien erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko dute, eta Audio Udalari aseguruia kontratatu izana frogatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko diote, denboraldia hastean edo hala errekeritzen zaionean, baina, edonola ere, instalazioak erabiltzen hasi baino lehenago.

6. Artikulua. Ikastetxeek

1. Laudion kokatutako ikastetxeek Udalaren kirol instalazioak erabili ahalko dituzte euren ordutegi eta egutegien barruan, betiere, Udalak euren beharrak aztertu ostean zehazten dizkien baldintzetan, eta prezio publiko edo tasa orokorrik ordaindu beharrik gabe.

2. Ikastetxeetako erabiltzaileak taldeka sartuko dira Udalaren kirol instalazioetan, ikastetxeko arduradun batek lagunduta. Ikastetxeko arduradunak bee burua identifikatu beharko du harre-rako langileen aurrean.

HIRUGARRENTITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. Artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

1. Eskubide hauek izango dituzte erabiltzaile guztiek:

a. Udalaren kirol instalazioak eta erregelamendu honetan jasotako zerbitzuak erabiltzea, betiere, xedatutako baldintzetan eta ordutegietan.

b. Eskatzen duten informazio guztia jasotzea instalazioei, ordutegiei, prezio publikoei, erreserbei, alokairuei eta ikastaro nahiz jardueretarako izen-emateei buruz.

c. Edozein unetan eskatzea zerbitzu edota instalazioetako langile nahiz arduradunen identifikazioa, egokitzat jotzen diren erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izateko.

d. Eurenganako nahiz euren ohorearekiko errespetua eta Audio Udaleko langileengandiko tratu egokia eta adeitsua jasotzea.

e. Edozein zalantza, iradokizun edo erreklamazio planteatzea instalazioei edota zerbitzuei dagokienez. Horretarako, erabiltzaileen esku jarriko dira erreklamazio-orriak instalazio bakoitzeko Informazio Zerbitzuan.

Erreklamazioa aurkezten duen erabiltzaileak kopia bat jasoko du eta erantzun egingo zaio, idatziz edo telefonoz.

f. Audio Udalak kontratatutako erantzun zibileko aseguruaren estaldura izatea.

g. Erregelamendu honen kopia eskatzea.

h. Diskriminaziorik ez jasatea sexua, jatorria, etnia, kultura, arraza, desgaitasuna, identitatea edo sexu-orientazioa dela eta.

i. Indarrean dagoen legedian jasotako gainerako eskubideak.

2. Aurreko atalean zerrendatutako eskubideez gain, abonatuak pertsonak eskubidea izango dute udal kirol-instalazio guztietako esparruetan libreki sartzeko, denboraldiko abonatu txartela aurkeztuta, betiere, instalazioak irekita dauden egun eta ordutegietan eta baldintza orokorrak beteta.

8. Artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

1. Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituzten pertsona guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

a. Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak behar bezala tratatzea eta zaintzea. Zabarke-riaren edo doloaren ondorioz gertatutako edozein kalte konpontzea egintzaren erantzulearen kontura izango da.

b. Instalazioetako langileei jakinaraztea funtzionamendu-arazoak, hausturak, akatsak nahiz erregelamenduko xedapenen urratzeak. Arau-hauste larritzat joko da norberak eragindako kalteen berri ez ematea.

c. Instalazioak garbi edukitzen laguntzea, instalazioetako leku desberdinetan dauden paperontziak eta ontzi higienikoak erabilia horiek erabiltzeko araudiarekin bat.

d. Instalazioen funtzionamendu-ordutegiak errespetatzea, langileen jarraibideei men eginda.

e. Gainerako abonatu eta erabiltzaileak errespetuz tratatzea, bizikidetzatza onerako behar den gizalegea aplikatuta.

f. Gorputz-higieneko neurri egokiak hartzea eta kasuan kasuko jarduerarako arropa egokia erabiltzea.

g. Beste abonatu edo erabiltzaileen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, bereziki, lehendik finkatuak dauden ordu-erreserbak.

h. Zehaztutako kuotak, prezio publikoak, tasak, ordutegi- edota instalazio-erreserbak, ikastaroak eta abar garaiz ordaintzea.

i. Audio Udalak organo eskumendunaren bidez edota instalazioetako langileen bidez ematen dituen agindu eta jarraibideei men egitea, eta haien lana erraztea.

j. Instalazioetako langileak errespetatzea, hain lana erraztea eta behar bezala jarraitzea haien argibideei.

k. Abonatu-txartelaren bidez bere burua identifikatzea instalazioak zaintzen ari diren langileek hala eskatzen diotenean, edota instalazio-erreserbaren tiketa erakustea langileek eskatzen badiote.

Abonatu-txartela aurkezten den unean abonatu-izaeran gorabeherarik antzematen bada, instalazioetan sartzeko baimena emango da unerako, baina txartela atxikiko da gorabehera argitu arte.

1. Indarrean dauden legetan eta erregelamendu honetan jasotako gainerako betebeharrak.

2. Audio Udalaren gomendioa da osasun-azterketa bat egitea Udalak programatutako edozein jarduera egiten hasi aurretik. Audio Udalak beretzat gordetzen du osasun-azterketa egitera derrigortzeko eskubidea egokitzat edo komenigarritzat jotzen duen kasuetan.

LAUGARRENTITULUA. UDALAREN KIROL INSTALAZIOETAN SARTZEKO ETA HORIEK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

9. Artikulua. Sarbidea eta erabilera-arau orokorrak

1. Oro har, Audio Udalak jaulkitako txartelaren bidez egingo da sarbidea, edo instalazioetako harreraren erositako tiketaren bidez, betiere, prezio publikoa ordaindu ostean. Udalaren kirol instalazioetako langile arduradunek edozein unetan eska diezazkiekete erabiltzaileei dokumentu horiek erakustea.

2. 4 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharko Udalaren kirol instalazioetan sartzeko, baina adinez nagusi den pertsona batek lagundu beharko die uneoro, euren erantzule gisa.

3. Audio Udalak ez du bere gain hartuko armairutxoetan edo aldageletan utzitako objektuen zaintzaren ardura.

4. Instalazioetan lehiaketa edota ikuskizunak daudenean, horien antolatzaileen erantzukizuna izango dira publikoak egin ditzakeen ekintzak. Lehiaketa ofizialei dagokienez, kasuan kasuko federazioari eta klubari jakinaraziko zaizkie gerta litezkeen kalteak; kalteak eragin dituen klubeko kirolariei ez zaie udal instalazioetan sartzeko eragindako kalteen kostua ordaindu arte.

5. Pertsona edota ondasunei eragindako edozein kalte pertsona edo erakunde eragilearen erantzukizuna baino ez da izango.

6. Audio Udalak erantzukizun zibileko aseguru-poliza dauka, kapital aseguratu gisa estipulatuak dauden mugen barruan administrazio publiko gisa eduki litzakeen ondarezko erantzukizunen ondoriozko kalte-ordainei aurre egiteko, dagokion araudia aplikatuta.

7. Bereziki zaindu beharko da instalazioetako parketa edota kirol kantxa desberdinetako zoru bereziak ez kaltetzeko oinetako bereziak erabiltzen direla.

Aurreko guztiagatik, kirola praktikatzeko, bide publikoetan erabiltzen diren oinetakoez bestelako zapatak erabiltzea sustatuko da, bereziki, neguan.”

8. Debebatua dago baloi, pilota edo bestelako objektuekin jolastea edo berotzea aldageletan, pistetan sartzeko igarobideetan, harmailetan, nahiz espezifikoki kirol-espazio gisa hartzen ez diren gainerako lekuetan.

9. Armairutxoak kirola egiten den bitartean eta erabiltzaileak instalazioetan dauden bitartean baino ez dira erabiliko.

Behin kirola egiten bukatuta, armairutxoa libre utzi beharko da. Audio Udalak edozein unetan hustu ahalko ditu instalazioak herritarrentzako irekita ez dauden orduetan okupatuak jarraitzen duten armairutxoak.

10. Debebatua dago instalazioetan jatea eta bertan kristalezko objektuak sartzea, betiere, eremu espezifikoen baimentzen ez bada (kafetegia, etab.).

11. Higiene eta osasun arazoak direla eta, debebatua dago instalazioetan bizarra egitea eta depilatzea.

12. Udalaren kirol instalazioetan debebatua dago erretzea eta tabakoaren publizitatea sustatzea, edozein dela modua.

13. Erabat debebatua dago alkohol-dun edariak saltzea, kontsumitzea eta horien publizitatea egitea Udalaren kirol instalazioetan.

14. Oro har, Udalaren kirol instalazio guztietan debebatua dago animaliekin sartzea.

Arau horretatik salbuetsiak daude ezohiko kasuak, esaterako, itsu-gidariak, halaberrezko kasuak nahiz puntualki eta esanbidez baimentzen diren bestelako kasuak.

15. Talde edota jarduera bakoitzerako zehaztu diren aldageletan baino ez dira egingo arropa eta ekipamendu aldaketak.

16. Instalazioaren barruan edo perimetroan publizitatea edo kartelak ipini nahi dituzten elkarte, klub eta federazioek Audio Udalaren esanbidezko baimena lortu beharko dute horretarako.

17. Oro har, eta Audio Udalaren esanbidezko baimenik ez badago, debebatua dago Udalaren kirol instalazioak irabazi-asmoarekin erabiltzea (eskola partikularrak eta abar).

18. Erabat debebatua dago larrialdietarako sarbideak manipulatzeko edota irekitzea.

19. Entrenatzera doazen kirolariei instalazioetan laguntzen dieten pertsonak ezingo dute harmailetan sartu edo aldagela-eremua okupatu.

10. Artikulua. Galdutako gauzen araudi orokorra

Kirol instalazio desberdinetan jasotzen diren gauza galduak 15 egunez utziko dira informazio zerbitzuan. Epe hori agortutakoan, Udaltzaingoaren egoitzara eramango dira, eta Audio Udaleko gauza galduen ordenantzan xedatutakoa aplikatuko da handik aurrera.

**BOSGARRENTITULUA. KIROL-INSTALAZIO ETA -EKIPAMENDU
DESBERDINAK ERABILTZEKO ARAU ESPEZIFIKOAK****11. Artikulua. Harmailak**

1. Oro har, publikoarentzako erreserbatutako espazioak dira harmailak. Kirol ekitaldietarako, partidietarako, emanaldietarako, kirol erakustaldietarako eta abarretarako erabiltzen dira.

2. Harmailetan debekatua dago hau egitea:

- Erretzea, udal instalazioa edozein izanda ere.
- Zikintzea eta hondakinak uztea.
- Beirazko ontziak, latak eta, oro har, erabiltzaileak nahiz kirolariak zauritu ditzaketen beste-lako objektuak sartzeta.
- Korrika egitea, jolastea, harmailaz harmaila saltoka ibiltzea, eta beste erabiltzaileei eragozpenak eragin diezazkiekeen beste ekintza oro.
- Objektuak jaurtitzea harmailetatik jokalekura edo alderantziz.
- Ezingo da kasuan kasuko instalaziorako zehaztu den pertsona kopurua baino handiagorik.

12. Artikulua. Igerileku estaliak eta aire zabalekoak

1. Erabiltzaileek kirola egiteko eta uretan jostatzeko dira igerilekuak, baita, oro har, igeri egiten ikasi eta hobetzeko ere.

Halaber, espazio (kale) eta ordutegi jakin batzuk kirol klubentzat erreserbatuko dira esklusiboki haiek erabiltzeko, euren jarduera espezifikokoak bideratu ditzaten, udal ebazpena bitarte.

2. Igerilekuetako instalazioetan sartzeko eta horiek erabiltzeko arau orokorrak:

a. Audio Udalak erabakiko ditu aire zabaleko igerilekuak nahiz igerileku estaliak irekitzeko eta ixteko denboraldi ofizialak, eta behar bezala jakinaraziko ditu egunak eta ordutegiak.

b. Instalazioetan behar bezala adieraziko da bertan sar daitekeen gehieneko pertsona kopurua, erabiltzaile guztiek ikusteko moduko lekuan.

Halaber, ikusteko moduko lekuan ipiniko dira uraren kalitatea, tenperatura, giroa, hezetasuna eta abar jakiteko parametro-azterketen emaitzak.

c. Instalazioetan sartzeko, preseski horretarako diren lekuak erabiliko dira; sartzeraoan erabiltzaile-txartela, ordainagiria, sarrera, baimena, edo kasuan kasuko agiri egokia erakutsi beharko da. Agiri egokirik aurkeztu ezean, eskumena duten langileek instalazioetarako sarbidea ukatu ahalko dute.

d. Igerilekua herritarrentzat zabalik dagoen orduetan, beharrezko titulazioa izango duen sorosle bat egongo da. Langile horiei dagokie igerilekuan ordena egokia dagoela zaintzea, eta, beraz, zorrozki egin beharko zaie jaramon haiek emandako jarraibide guztiei.

e. Erabat debekatua dago kontaktu zuzen edo zeharkako kontaktu bidez erraz transmititzen diren gaixotasunak dituzten pertsonak bainatzeko eremuan sartzeta. Uraren bidez edo elementu pasiboen bidez (adibidez, kortxo-ilaren edota igeriketa-taulen bidez) transmititzen diren eritasunak dituzten pertsonak ere ezingo dute bainu-eremuan sartu. Zalantzarik izatekotan, sorosleari galdetu beharko zaio.

f. Sorosleei jakinarazi beharko zaie erabiltzaileek duten eritasun oro, baldin eta haien segurtasunari eragin badietzaiokete uretan dauden bitartean (bihotzeko gaitzak, epilepsia, etab.).

g. Audio Udalak ez du inongo erantzukizunik hartuko bere gain erabiltzaileek igerian behar bezala ez jakiteagatik edota beharrezko zuhurtziarekin ez jokatzeagatik gerta litezkeen istripuen inguruan.

Hori dela eta, debekatua dago 10 urtetik beherako umeak sartzea (Udalak berak antolatutako programak edota ikastaroak alde batera utzita), ez baldin badoaz euren arduradun izango den heldu batekin.

h. Nahitaezkoa da dutxatzea igerilekuan sartu aurretik.

i. Nahitaezkoa da uretan bainujantzia eta txanoa jantzita izatea uneoro. Nahitaezkoa da txankletak edo bainatzeko oinetakoak erabiltzea, eta ezin dira utzi igerilekuaren perimetroko saretaren gainean.

Ezingo da inolaz ere bainatzeko eremuan sartu kaleko arropaz edo oinetakoez. Aurrekoa gorabehera, instalazioetan zerbitzua ematen duten langileek igerilekuan sartu behar badute nahitaez, kaleko oinetakoak plastikozko estalkiekin bilduko dituzte.

j. Erabat debekatua dago jatea igerileku estalietan eta aire zabaleko igerilekuetako bainu-eremuetan.

k. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

l. Erabat debekatua dago instalazioen barruan ezein formatutako irudirik hartzea.

m. Derrigorrezkoa da alokairuen eta, oro har, instalazioen ordutegia errespetatzea.

n. Indarrean dagoen araudiarekin bat, igerilekurako sarbidea etengo da baldin eta aire zabaleko igerilekuetan ur-geruzaren 2 metro karratuko 3 erabiltzaile baino gehiago badago eta igerileku estalietan metro karratuko erabiltzaile 1 baino gehiago badago. Erabiltzaile guztiek igerilekua erabiltzeko beharrezkoa den kasuetan, igerilekuan sartzeko txandak egin ahalko dira.

Arau horiek dutxen eremuan eta igerilekuetako aldagela osagarrietan ere aplikatuko dira.

ñ. Dutxen eremuan eta igerilekuetako aldagela osagarrietan, nork bere materialari dago-kionez prebentzio-neurri bereziak hartzea bultzatuko da (xukaderak, oinetakoak, bainujantziak, orraziak, etab.). Hortaz, horiek elkartrukatzea eta zoruarekin kontaktuan egotea saihestuko da.

o. Audio Udalak hamakak eta bestelako elementuak ipini ahalko ditu aire zabaleko igerilekuetan. Erabiltzaileek ezin dituzte instalazioetara eraman euren hamakak, guardasolak, eta abar.

p. Eguraldiak ez du inolaz ere eskubiderik emango instalazioetan sartzeko kuota itzultzeko.

3. Udal igerilekuetan bainatzeko arau espezifikoak:

a. Debekatua dago uretara salto egiteko korrika egitea, pertsonak bultzatzea, listua botatzea, uretan txiza egitea, eta, oro har, gainerako erabiltzaileen bainuan eragozpenak eragin dezakeen edo uraren kalitatea txarragotu dezakeen beste ezer egitea.

Espezifikoki, ezingo da igerilekuko hondartzan zehar korrika egin, buruz salto egin edo, oro har, gainerako erabiltzaileentzat gogaikarri edo arriskutsuak izan daitezkeen jolasak egin.

b. Erabiltzaile orok igeri egiteari dagokionez dauzkan ezagutzen eta gaitasunen arabera erabili beharko ditu bainu-eremuak. Zehazki, erabiltzaileak ez dira hondoa ukitzen ez duten eremuan sartuko ez badute horretarako nahikoa trebeziarik.

c. Behin uretan, debekatua dago baloiak, koltxonetak edo gainerako erabiltzaileak gogaitu ditzaketen objektuak sartzea (hegatsak, urpekari-betaurrekoak, eta abarrak barne.) , betiere, Audio Udalak horretarako baimenik eman ez badu. Aurrekoa gorabehera, esanbidez baimendu dago igeri egiteko betaurrekoak erabiltzea.

d. Audio Udalak igerilekuko kaleen banaketa egingo du eta erraz ikusteko moduko leku batean ipiniko du banaketa, bertan bideratzen diren jarduerak errespetatuta: bainu librea, ikastaroak, jarduerak eta klubengr programak.

Igeriketarako kalea: Kalearen eskuinaldetik egin behar da igeri, gelditu barik. Atsedean hartzeko, debekatua dago kaleen muturretan geratzea, beraz, bainu librerako kalera irten beharko da. Igeriketarako kale bat baino gehiago erreserbatu bada, norbere mailarekin bat datorrena hautatu beharko da, gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko.

Bainu librerako kalea: Nahi den bezala egin ahalko da igeri, betiere, gainerako erabiltzaileak gogaitu gabe edo eragozpenik sortu gabe eta igerileku estalietako araudia beteta.

e. Kirola egiteko materialen bat erabili nahi duten pertsonak sorosleari eskatu beharko diote, eta, behin erabiltzen bukatuta, materiala bere lekuan utziko dute berriz. Zehazki, igeri egiteko taulak erabili nahi dituzten pertsonak nahitaez erabili beharko dute instalazioko arduradunek adierazi dieten kalea.

13. Artikulua. Ellakuriko pista

1. Berariaz eman diren arauetan edota jarraibideetan xedatutakoari jarraikiz egingo dira erreserbak eta hala erabiliko dira instalazioak. Indarrean dagoen tasa eta prezio publikoen ordenantzan jasotakoak ere aplikatu beharko dira.

2. Instalazioak erabiltzeko lehentasun hauek ezarri dira:

a. Audio Udalak edo Arabako Atletismo Federazioak antolatzen dituzten jarduerak (eskolak nahiz lehiaketak).

b. Atletismo klubak eta SHEE-ren jarduerak (entrenamenduak, etab.).

c. Gainerako erabiltzaileen jarduerak.

Nolanahi ere, Udalak beretzat gorde du instalazioaren erabilera mugatzeko eskubidea atletismo lehiaketen, futbol partiden edo hori justifikatzen duten gainerako ekitaldien kasuetan, eta, betiere, aurretik jakinarazita.

3. Atletismo pistarako sarbideari eta erabilerari dagokionez, arau hauek bete beharko dira:

a. Kasuan kasuko jarduerarako arropa eta oinetako egokiak erabili beharko dira.

b. Erabat debekatua dago instalazioetan jatea eta erretzea.

c. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

d. Ez da onartuko pista jatorriz duen erabilera ez den beste erabilerarik, ezta gainerako erabiltzaileentzat gogaikarria izan daitekeen erabilerarik ere.

4. Atletismo pistaren erabilerari dagokionez, arau espezifiko hauek bete beharko dira:

a. Entrenamenduetarako eta etenik gabeko lasterketa-ariketarako pista perimetral urdina erabiliko da, hori baita erabilera horretarako egokiena bere ezaugarri teknikoak kontuan hartuta.

Erabiltzaile guztiak eragozpenik gabe jardun ahal izateko, erlojuaren orratzen kontrako zentzuan erabiliko da beti pista.

b. Pistetan ezingo da ariketarako elementurik erabili, atletismorako osagarri espezifikoak salbu.

Entrenatzeko materiala erabiltzen duten klubek dagokien biltegietan utzi beharko dute materiala entrenamendua bukatutakoan.

c. Ez da inolaz ere onartuko aldi berean entrenamenduak eta lehiaketa ofizialak egitea Ellakuriko futbol zelaian eta atletismo pistan edo alderantziz.

14. Artikulua. Fitness eta muskulazio aretoak

1. Fitness eta muskulazio aretoetan makina kardiobaskularrez eta makina isotonikoez gain, muskulaziorako materiala dago. Libreki erabili ahalko dira, betiere, dauden instalazioko ordutegia errespetatuta.

2. Fitness eta muskulazio aretoak erabiltzeko, arau hauek bete beharko dira:

a. Instalazioetan behar bezala adieraziko da bertan sar daitekeen gehieneko pertsona kopurua, erabiltzaile guztiek ikusteko moduko lekuan adierazi ere.

b. Audio Udalak antolatzen dituen jarduerak lehentasuna dute aretoen beste edozein erabilaren gainetik. Hortaz, eta aurretik jakinarazita, instalazioen erabilera mugatu ahalko du Audio Udalak, ikastaroak emateko edo beste edozein zirkunstantzia dela medio.

c. Instalazioetan sartzeko, preseski horretarako diren lekuak erabiliko dira; sartzekoan erabiltzaile-txartela, ordainagiria, sarrera, baimena, edo kasuan kasuko agiri egokia erakutsi beharko da. Agiri egokirik aurkeztu ezean, eskumena duten langileek instalazioetarako sarbidea ukatu ahalko dute.

d. Debekatua dago 16 urtetik beherakoek instalazioak erabiltzea.

e. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

f. Kirolerako arropa eta oinetakoak jantzita baino ezingo dira erabili instalazioak. Halaber, derrigorrezkoa da xukadera erabiltzea.

g. Audio Udalak ez du erantzukizunik hartuko bere gain instalazioen erabiltzaileek fitness edo muskulazioa egiteko makinak edota elementuak erabiltzen ez jakitearen ondorioz edo txarto erabiltzearen ondorioz jasan litzaketen kalte edo zauriei dagokienez.

h. Langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira.

i. Behin materiala edota ekipamenduak erabilita, dagokien lekuan utzi beharko dira, eta erabiltzeko baldintza egokietan.

j. Ezingo da jan edo erre fitness eta muskulazio egiteko aretoan.

k. Ezingo da materiala modu desegokian erabili, ezta aretoko gainerako erabiltzaileentzat gogaikarria izan daitekeen jarduerarik bideratu ere.

15. Artikulua. Kirol edo erabilera anitzetarako pistak

1. Funtsean, kirol anitzetarako pistak kirol modalitate desberdinak praktikatzeko erabiliko dira, betiere, instalazioen berezko ezaugarriak eta helburu naturalak errespetatuta. Aurrekoa gorabehera, eta salbuespen gisa, esanbidez baimendu ahalko dira egokitzen jotzen diren ekitaldi sozial edota kulturalak.

2. Arau orokor hauek bete beharko dira kirol anitzetarako pistetan sartzeko eta horiek erabiltzeko:

a. Audio Udalak, klubek eta kirol federazioek (ahal dela, bertokoek), ikastetxeek, elkarteek eta bestelako taldeek antolatutako jardueretarako baino ezin da erabili kirol anitzetarako pistak.

Nolanahi ere, Audio Udalak antolatzen dituen jarduerak eta bestelako erabilerekin lehentasuna izango dute gainerakoekin, betiere, aurretik jakinarazita beharrezkoa denean.

b. Erregelamendu honetan, kasuan kasu eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

3. Arau orokor hauek bete beharko dira kirol anitzetarako pistak erabiltzeko:

a. Erabiltzaileek kirolerako arropa eta oinetakoak erabili beharko dituzte instalazioetan, langile teknikoek eta entrenamenduko erabiltzaileek barne. Nolanahi ere, kirolerako oinetakoen zolek zuriak edo tonu argikoak izan behar dute, joko-zoruan markarik ez uzteko.

b. Kontroleko langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira. Taldeen kasuan, aldagela kolektiboak erabili beharko dira; taldeen arduradunei aldagela kolektiboen giltza emango zaie.

c. Behin materiala edota ekipamenduak erabilita, dagokien lekuan utzi beharko dira.

d. Ezingo da jan edo erre kirol anitzetarako pistetan.

e. Ezingo da materiala modu desegokian erabili, ezta aretoko gainerako erabiltzaileentzat gogaikarria izan daitekeen jarduerarik bideratu ere.

16. Artikulua. Squash pistak

1. Arau orokor hauek bete beharko dira squash pistak erabiltzeko:

a. Erabiltzaileek kirolerako arropa eta oinetakoak erabili beharko dituzte instalazioetan, langile teknikoek eta entrenamenduko erabiltzaileek barne. Nolanahi ere, kirolerako oinetakoen zolek zuriak edo tonu argikoak izan behar dute, joko-zoruan markarik ez uzteko.

b. Kontroleko langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira.

c. Erregelamendu honetan, kasuan kasurako eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

d. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

e. Ezingo da jan edo erre squash pistetan.

f. Ezingo da aretoko gainerako erabiltzaileentzat gogaikarria izan daitezkeen jarduerarik bideratu.

17. Artikulua. Futbol eta hockey zelaia

1. Futbol eta hockey zelaia berezko zaien helbururako erabiliko dira, baina beste kirol batzuk praktikatzeko ere erabili ahalko dira, betiere, instalazioko azpiegiturak aukera ematen badu, instalazioko materiala edo zoladura kaltetzen ez bada, eta beti Udalak esanbidez baimentzen badu.

2. Futbol eta hockey zelaietarako sarbideari eta erabilerari dagokienez, arau orokor hauek bete beharko dira:

a. Audio Udalak, klubek eta kirol federazioek (ahal dela, bertokoek), ikastetxeek, elkarteek eta bestelako taldeek antolatutako jardueretarako baino ezin da erabili futbol eta hockey zelaia.

Nolanahi ere, Audio Udalak antolatzen dituen jarduerak eta bestelako erabilerekin lehentasuna izango dute gainerakoekiko, betiere, aurretik jakinarazita beharrezkoa denean.

b. Erregelamendu honetan, kasuan kasurako eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

c. Zelaietan sartzeko eta ateratzeko orduak erreserban adierazitakoak izango dira, eta, beraz, ezingo da zelaia erabili berotzeko eta bestelako ariketetarako.

Lehiaketa ofizialen kasuan, hasi baino ordu laurden lehenago utziko zaie sartzeko taldeei, beroketa-ariketak egin ditzaten, eta lehiaketa bukatutakoan zelaitik atera beharko dute.

d. Ezingo da inolaz ere aldi berean egin entrenamendu bat eta lehiaketa ofizial bat Ellakuriko futbol zelaietan eta atletismo pistan, edo alderantziz.

e. Entrenamenduetan eta lehiaketa ofizialak dauden bitartean, baimendutako kirolari, entrenatzaile eta talde-delegatuek baino ezingo dute sartu zelaietan. Gainerako interesdunak harmailetan jarri beharko dira, jarraitzaile zein lagun izan.

3. Futbol eta hockey zelaien erabilerari dagokienez, arau orokor hauek bete beharko dira:

a. Zelai hauetan erabiltzeko oinetakoak gomazko zola eta takoak izan behar dituzte, ahal dela, multitakoak eta orpoaren aldean, gutxienez, lau tako.

b. Talde bakoitzak zelai bakoitzean uzten dituen materialak beren jabetzako saskietan, sareetan edo poltsetan sartuak egon beharko dute, eta Udalak ez du inongo erantzukizunik izango horiei dagokienez.

c. Kontroleko langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira. Taldeen kasuan, aldagela kolektiboak erabili beharko dira; taldeen arduradunei aldagela kolektiboen giltza emango zaie.

Entrenamenduen kasuan, hasi baino 15 minutu lehenago irekiko dira aldagelak, eta erabat hutsik geratu beharko dira entrenamendua bukatu eta 30 minuturen buruan.

Partida ofizialen kasuan, hasi baino 60 minutu lehenago irekiko dira aldagelak, eta erabat hutsik geratu beharko dira partida bukatu eta 30 minuturen buruan.

d. Ezingo da jan edo erre futbol eta hockey zelaietan.

18. Artikulua. Tenis pistak

1. Tenis pistak berezko zaien helbururako erabiliko dira, baina beste kirol batzuk praktikatzeko ere erabili ahalko dira, betiere, instalazioko azpiegiturak aukera ematen badu, instalazioko materiala edo zoladura kaltetzen ez bada, eta beti Udalak esanbidez baimentzen badu.

2. Arau orokor hauek bete beharko dira tenis pistetan sartzeko eta horiek erabiltzeko:

a. Audio Udalak, klubek eta kirol federazioek (ahal dela, bertokoek), ikastetxeek, elkarteek eta bestelako taldeek antolatutako jardueretarako baino ezin da erabili futbol eta hockey zelaiak. Aipatutako talde horiek erabiltzen ez dituzten eta libre dauden orduetan, instalazioak zabalik dauden orduetan, 12 urtetik gorako erabiltzaileek pistak erreserbatu ahalko dituzte.

Nolanahi ere, Audio Udalak antolatzen dituen jarduerak eta bestelako erabilerekin lehentasuna izango dute gainerakoekiko, betiere, aurretik jakinarazita beharrezkoa denean.

b. Erregelamendu honetan, kasuan kasurako eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

3. Arau orokor hauek bete beharko dira tenis pistak erabiltzeko:

a. Instalazioan sartzeko kirolerako arropa eta oinetakoak jantzi behar dira, entrenatzaileek eta beste pertsonak barne.

b. Instalazioen erabiltzaileek ekarri beharko dute jarduera egiteko materiala.

c. Pista bakoitzean lau pertsona aritu daitezke gehienez, tenis eskoletan eta Audio Udalak esanbidez baimendutako kasuetan izan ezik.

d. Ezingo dira tenis pistak erabili eskola partikularrak emateko edo Audio Udalak esanbidez baimendu gabeko erakunde edo jardueretarako.

Ondore horretarako, ikastaro edo eskola partikulartzat hartuko da teniserako erreserbak egitea eta ordu horietan tenisa irakasteko titulazioa duen edo ez duen pertsona bat pertsona gehiagorekin elkartzea, pilota orgatxo edo gurditxo batekin edo gehiagorekin, Audio Udalaren esanbidezko baimena izan barik.

e. Kontroleko langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira.

f. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

g. Ezin da jan edo erre tenis pistetan, erabiltzaileek jarduera normalean izaten dituzten anoak salbu.

19. Artikulua. Padel pistak

1. Padel pistak berezko zaien helbururako erabiliko dira, baina beste kirol batzuk praktikatzeko ere erabili ahalko dira, betiere, instalazioko azpiegiturak aukera ematen badu, instalazioko materiala edo zoladura kaltetzen ez bada, eta Udalak esanbidez baimentzen badu.

2. Arau orokor hauek bete beharko dira padel pistetan sartzeko eta horiek erabiltzeko:

a. Audio Udalak, klubek eta kirol federazioek (ahal dela, bertokoek), ikastetxeek, elkarteek eta bestelako taldeek antolatutako jardueretarako baino ezin da erabili futbol eta hockey zelaiak.

Nolanahi ere, Audio Udalak antolatzen dituen jarduerak eta bestelako erabilerekin lehentasuna izango dute gainerakoekiko, betiere, aurretik jakinarazita beharrezkoa denean.

b. Erregelamendu honetan, kasuan kasurako eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

3. Arau orokor hauek bete beharko dira padel pistak erabiltzeko:

a. Instalazioan sartzeko kirolerako arropa eta oinetakoak jantzi behar dira, entrenatzaileek eta beste pertsonak barne.

b. Instalazioen erabiltzaileek ekarri beharko dute jarduera egiteko materiala.

c. Pistetan ezingo dira lau pertsona baino gehiago aldi berean aritu, Laudio Udalak esanbidez baimendutako kasuetan izan ezik.

d. Ezingo dira padel erabili eskola partikularrak emateko edo Laudio Udalak esanbidez baimendu gabeko erakunde edo jardueretarako.

Ondore horretarako, ikastaro edo eskola partikulartzat hartuko da padelerako erreserbak egitea eta ordu horietan padela irakasteko titulazioa duen edo ez duen pertsona bat pertsona gehiagorekin elkartzea, pilota orgatxo edo gurditxo batekin edo gehiagorekin, Laudio Udalaren esanbidezko baimena izan barik.

e. Kontroleko langileek adierazitako aldagelak erabili beharko dira.

f. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

g. Ezin da jan edo erre padel pistetan, erabiltzaileek jarduera normalean izaten dituzten anoak salbu.

20. Artikulua. Frontoiak

1. Frontoiei berezko zaien erabilera emango zaie, hau da, euskal pilota eta frontoiko jokoetarako eta fronteniserako. Hala ere, eta salbuespen kasuetan, izaera soziala dela eta baimentzen diren ekitaldiak ere egin ahalko dira instalazioetan.

2. Arau orokor hauek bete beharko dira frontoietan sartzeko eta horiek erabiltzeko:

a. Laudio Udalak, klubek eta kirol federazioek (ahal dela, bertokoek), ikastetxeek, elkarteek eta bestelako taldeek antolatutako jardueretarako baino ezin da erabili futbol eta hockey zelaia. Aipatutako talde horiek erabiltzen ez dituzten eta libre dauden orduetan, instalazioak zabalik badaude, 16 urtetik gorako erabiltzaileek pistak erreserbatu ahalko dituzte.

Nolanahi ere, Laudio Udalak antolatzen dituen jarduerak eta bestelako erabilerekin lehentasuna izango dute gainerakoekiko, betiere, aurretik jakinarazita beharrezkoa denean.

b. Erregelamendu honetan, kasuan kasurako eman daitezkeen jarraibideetan eta prezio publikoei buruzko ordenantzan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak.

3. Frontoien erabilerari dagokionez, arau orokor hauek bete beharko dira:

a. Instalazioan sartzeko kirolerako arropa eta oinetakoak jantzi behar dira.

b. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzea.

c. Frontoietan ezin da erre edo jan.

21. Artikulua. Sauna

1. Sauna zerbitzua 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da, baita medikuak gomendatuta sauna erabili behar duten adingabeentzat ere.

2. Arau orokor hauek bete beharko dira saunetan sartzeko eta horiek erabiltzeko:

a. Udalarari dagokio instalazioak erabiltzeko sistema finkatzea, barne-gidalerroen bidez.

b. Instalazioetan behar bezala adieraziko da bertan sar daitezkeen gehieneko pertsona kopurua, erabiltzaile guztiek ikusteko moduko lekuan adierazi ere. Behin gehieneko kopurura iritsita, ez zaio jende gehiagori saunan sartzen utziko. Saunaren edukiera mugatua dela eta, sauna saioek ez dute ordubete baino gehiago iraungo.

c. Instalazioetan sartzeko, preseski horretarako diren lekuak erabiliko dira; sartzekoan erabiltzaile-txartela, ordainagiria, sarrera, baimena, edo kasuan kasuko agiri egokia erakutsi beharko da. Agiri egokirik aurkeztu ezean, eskumena duten langileek instalazioetarako sarbidea ukatu ahalko dute. Nolanahi ere, eta sartu aurretik, indarrean dagoen prezio publikoa ordaindu beharko da.

3. Saunaren erabilerari dagokionez, arau orokor hauek bete beharko dira:

a. Saunan sartu aurretik dutxa hartu beharko da.

b. Ezingo da saunan sartu oinetakorik gabe.

c. Bainurako arropa eta xukadera erabiliko dira uneoro.

d. Gaixotasun transmitigarriak edo infekzio-kutsakorrek dituzten pertsonak ezingo dute saunan sartu.

e. Debekatua dago sauna barruan jatea, edatea, erretzea, depilatzea, bizarra egitea eta kremak, ukenduak edo olioak erabiltzea.

f. Erabat debekatua dago txakurrak, katuak edo beste edozein animalia sartzeari.

g. Ezin dira liburuak, aldizkariak edo gailu elektronikoak sartu saunan.

SEIGARRENTITULUA. KIROL-INSTALAZIO ETA -EKIPAMENDU DESBERDINAK ERRESERBATZEKO ARAUAK

22. Artikulua. Ikastetxeek kirol instalazioak erreserbatzea

1. Heziketa fisikoko ikasgaia emateko Udalaren kirol instalazio publikoak erreserbatu nahi dituzten ikastetxeek dagokion instantzia aurkeztu beharko dute ikasturte bakoitzeko irailaren 1etik 30era.

2. Eskaerak betekizun hauek bete beharko ditu:

a. Eskola-egutegiaren eta -ordutegiaren arabera izan beharko du, baita instalazioak irekitzeko ordutegi eta egutegiaren arabera ere.

b. Baldintza berdinetan eta eskola-ordutegiaren barruan, instalazioetan sartzeko lehentasuna izango dute Laudioko ikastetxe publikoak. Instalazioak erabili nahi dituzten ikastetxe desberdinen arteko lehentasuna erabaki behar denean, eta ikastetxeak baldintza berdinetan egonda, zozketa egingo da.

3. Laudio Udalak beretzat gorde du egunak, orduak eta abar aldatzeko eskubidea jarduera berrien ondorioz beharrezkoa den kasuetan, baita jarduerak bertan behera uztekoa ere, izaera puntualeko bestelako ekitaldiak egin behar direnean. Aldaketak badaude, ikastetxeei jakinaraziko zaie behar bezalako aurretiaz.

Ikastetxeak beste jarduera baten ondorioz jarduera bertan behera utzi behar duen kasuetan, horren berri eman beharko dio Laudio Udalari, behar bezalako aurretiaz eta idatziz.

23. Artikulua. Kirol klubak, federazioak, taldeak, elkarteak eta bestelako erakundeak

1. Instalazioak entrenamendu nahiz lehiaketetarako erabiltzea eskatu ahalko dute erregelamendu honetako betekizunak betetzen dituzten klub, kirol-elkarte eta enparauek.

Erabiltzeko eskaera une jakin baterako edo kirol denboraldi osorako egin daiteke. Denboraldi osorako erabiltze-baimenak berritu ahalko dira, betiere, esanbidez, baldin eta ez bada sinatzen horretarako berriazko hitzarmenik.

2. Erabilera puntuala edo noizbehinkakoa egiten duten klub, talde edo elkarteek gainerako erabiltzaileentzat xedatutako bide berberetik egin beharko dituzte kasuan kasuko erreserbak, eta dagokien tasa edo prezio publikoa ordaindu beharko dute erabiltzerakoan.

Aurrekoa gorabehera, legalki eratuak dauden eta estatutuak Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritza Nagusiak onetsiak dituzten federazioak, elkarte eta klubek ez dute prezio publikoa ordaindu beharko Udalaren kirol instalazioak entrenatzeko leku gisa edo ohiko lehiaketetarako erabiltzeko.

3. Kirol denboraldi osorako erabilera baimentzeko eskaerak betekizun hauek bete beharko ditu:

a. Kirol denboraldia irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era doa.

b. Idatziz aurkeztu beharko da HAZ-n (Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan) urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehenago.

c. Eskaeran datu hauek jaso beharko dira: talde eskatzailea, helbidea, telefonoa, arduraduna, egingo den kirol jarduera, kategoria, erabiltzaile kopurua, egutegia eta abar. Klubeko edo kirol elkarteko presidentek eskaera sinatu beharko du.

4. Kirol denboraldi osoan instalazioak erabiltzeko eskaeraren inguruko ebazpena Audio Udalaren irizpide teknikoen arabera emango da, behin eskaera guztiak aztertuta eta, nolana ere, alderdi hauek kontuan hartuta:

a. Talde eskatzaileen egonkortasuna, kirol arloko elkartegintza sustatzeko modu gisa.

b. Eskatzailearentzat lehentasuna izatea Audioko herritarrak kiroletan parte hartzea.

c. Kasuan kasuko klubak daukan kategoria eta talde kopuruari erreparatuko zaio, baita jarduera bakoitzaren parte-hartzaileen kopuruari ere.

d. Eskualdeko kirol interesetan laguntzea, eta, bereziki, Audio Udalaren kirol interesetan.

e. Lehentasuna ematea promozio gutxien duten kirolei.

f. Lehentasuna emango zaie baliabiderik ez duten elkarreei.

g. Aurretik emandako erabilera baimenetan xedatutako betebeharrak bete izana.

Nolana ere, lehentasuna emango zaie betekizun hauek betetzen dituztenei:

a. Egoitza soziala Audioren izatea.

b. Ez edukitzea kirol instalazio propioak.

5. Behin kirol denboraldi osorako erabilera baimena emanda ebazpen bidez, eskatzaileei jakinaraziko zaie, ordutegiarekin eta entrenamendu orduekin batera.

Nolana ere, ebazpenari eta instalazioen erabilerari dagokienez, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Irailaren lehenengo astetik aurrera zehaztuko dira entrenamenduen eta partida ofizialen ordutegi-etaulak.

b. Asteburuetakoa partiden egutegiak kasuan kasuko federazioak ezarritakoak izango dira.

6. Erabilera-baldintzen aldaketa guztiak, aldi baterakoak nahiz behin bgetikoak, gutxienez zazpi eguneko aurretiaz eskatu edo jakinarazi beharko zaizkio Audioren Udalari, idatziz, ezeztapenak barne.

Denboraldi osorako baimenen kasuan, arrazoi bereziengatik lagunarteko partidak, partida atzeratuak, etab. egin behar direnean asteko entrenamendu-orduetan, gutxienez, zazpi egun lehenago eman beharko da horren berri, eta, ahal den heinean, aldi berean bideratu beharreko beste jardueretan eragozpenik ez sortzeko moduko orduetan programatuko dira, taldeek instalazioa izan dezaten, baina ez da bermatzen publikoak harmailetan sartzeko aukera.

7. Udalaren kirol instalazioetan bideratuko diren lehiaketa ofizialetarako ez da dagokion tasa edo prezio publikoa ordaindu beharko, kasu hauetan salbu:

- a. Aparteko muntatze- edo prestatze-lanak beharrezkoak direnean.
- b. Parte hartzen duten taldeek publizitate estatikoa erabiltzen dutenean.

24. Artikulua. Erabiltzaileen erreserbak

1. Udalaren kirol instalazio hauek erreserbatu ahalko dituzte erabiltzaileek, indibidualki:

- Squash pistak.
- Tenis pistak.
- Padel pistak.
- Frontoiak.
- Futbol eta hockey zelaiak.
- Sauna.

2. Squash eta tenis pistak 2 asteko aurretiaz erreserba daitezke gehienez ere.

3. Squash, tenis eta padel pistak gehienez ere astean hiru aldiz erreserbatu ahalko ditu erabiltzaile berak. Hala ere, erreserba gehigarriak egin ahal izango dira gehienez 3 orduko aurretiaz, pista libre badago.

4. Erregelamendu honetan xedatutakoarekin bat erreserbatu eta erabiliko dira instalazioak, eta indarrean dagoen ordenantzan zehaztutako prezio publikoak ordainduta.

5. Titulu honetan aipatutako kirol instalazioak erreserbatu eta ordaintzeak berarekin dakar parte hartzen duten kirolari guztiek eskubidea dutela instalazioetan sartzeko, kirolariak abonatuak izan ala ez.

6. Artikulu honetako 1. idatzi-zatian aipatutako kirol instalazioen aurretiazko erreserba egiten duen pertsonaren eskubideak eta betebeharrak erreserba egitean sortzen dira, ez instalazioak erabiltzeko unean.

7. Erreserbaren titularrak pistan bertan edo erreserbatutako instalazioan egon beharko du beti.

8. Dagokion zinegotziaren jarraibideen arabera zehaztuko da tenis eta padel pisten, hockey zelaiaren eta Gardeako frontoiaren erreserba-sistema une bakoitzean. Sistema ezartzen denean komunikabide sozialen bidez jakinarazteko aukera gorabehera, udal webgunean eta gainerako udal komunikabideetan kontsultatu ahalko da sistema, uneoro.

9. Dagokion zinegotziaren jarraibideen arabera zehaztuko da squash pisten, futbol eta saskibaloiz zelaiaren eta Aretako frontoiaren erreserba-sistema une bakoitzean. Sistema ezartzen denean komunikabide sozialen bidez jakinarazteko aukera gorabehera, udal webgunean eta gainerako udal komunikabideetan kontsultatu ahalko da sistema, uneoro.

10. Gutxienez, 24 orduko aurretiaz egin beharko dira erreserba-ezeztapenak. Baldintza hori bete ezean, ez da itzuliko erreserbaren prezio publikoa.

11. Instalazioen erreserba aldeztatik baliogabetu gabe erabili barik uzten bada (urtebetean bi aldiz), erreserbak egiteko eskubidea galduko da hurrengo 12 hilabeteetan.

12. Instalazioetako langileek erreserba ezeztatu ahalko dute instalazioen egoerak ez badu erabilera egokia ahalbidetzen, betiere, erreserba egin duen pertsonari jakinarazi ostean. Kasu horretan, erreserbaren zenbatekoa itzuliko da, edo erreserba beste egun batera aldatzea baimenduko da, ezaugarri berberak dituen espazio baterako.

13. Klimatologiak larriki eragiten dienean instalazioei eta ohiko erabilera eragozten duenean, interesdunak aukera izango du erreserbatutako ordua eta eguna aldatzea eskatzeko, doan, erreserbaren ordua hasi baino hogeita hamar minutu lehenagora arte. Ordua aldatzeko sistema zinegotzi delegatuaren jarraibideen arabera zehaztuko da.

25. artikulua. Udalaren kirol instalazioak erreserbatzea kirolekoak ez diren ekitaldietarako

1. Salbuespenezko kasuetan, Udalaren kirol instalazioetan bestelako jarduerak baimendu ahalko dira horien izaera sozialari erreparatuta (kultura-sustapena, ikuskizunak, helburu sozialetarako kirolaz besteko jarduerak, etab.), betiere, Udalak aurretik eta esanbidez baimentzen baditu.

2. Prozedura hau aplikatuko da Udalaren kirol instalazioak kirolekoak ez diren ekitaldietarako erreserbatzeko:

a. Eskaera gutxienez ekitaldia baino bi hilabete lehenago aurkeztu behar da.

b. Udal ebazpena eta jakinarazpena. Udal ebazpenaren bidez instalazioak erabiltzea baimentzen bada, eskatzaileak bete beharreko baldintza eta betekizun guztiak adieraziko dira ebazpenean bertan, baita ekitaldia egiteko nahitaezkoa den erantzukizun zibileko aseguruaren zenbatekoa ere.

Baimena ukatzen bada, udal ebazpena arrazoitu beharko da.

c. Instalazioak erabiltzeko baimena ematen bada, eskatzaileak betekizun hauek bete beharko ditu:

– Gutxienez, baimendutako ekitaldia baino hamabost egun lehenago, batzar teknikoa egingo da instalazioaren arduradunarekin behar zehatzak finkatzeko eta Udalaren sarrera-erregistroan aseguru-poliza nahiz erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria aurkezteko.

– Gutxienez, baimendutako ekitaldia baino 48 ordu lehenago, Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu beharko da Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ebazpena, hala dagokion kasuetan.

3. Erakunde antolatzailearen kontura izango dira baimen eta lizentzien izapideak zein gastuak, baita egile-eskubideen ordainketa eta esparruan egingo den ekitaldirako sortzen diren estatu-, probintzia- eta udal-zerga guztiak ere.

Halaber, erakundearen kontura izango dira ekitaldiaren aurreko publizitate-gastuak eta horien gaineko zergak, alokairu-gastuak, aulkia jarri eta kentzekoak, argindarraren gastuak, garbiketa, muntaketa, desmuntatzea nahiz garraioa, baita aurretik zehaztu ez diren eta Audio Udalaren kargurakoak ez diren beste ordainketa eta gastu guztiak ere.

4. Audio Udalak zehaztuko du segurtasunerako langileak behar diren ala ez, ateak eta kutxatila behar diren, eta, behar izatekotan, horiek non kokatu ikus-entzuleen sarbidea eta jartzea kudeatzeko. Erakunde antolatzaileak kontratatu eta ordainduko ditu zerbitzu horiek, baita ekitaldian zuzenean edo zeharka parte hartuko duten gainerako langileak ere.

5. Ezingo da instalazioan sartu kasuan kasuko instalaziorako zehaztu den pertsona kopurua baino handiagorik.

6. Erakunde antolatzaileak erabilera baimentzean zegoen egoera berean utzi beharko ditu instalazioak, eta baimena emateko ebazpenean adierazi zitzaien orduan.

26. Artikulua. Ikastaroetan plaza erreserbatzea eta izena ematea

1. Udalak askotariko kirol modalitateetan aritzeko antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko epea, normalean, uztailan hasiko da eta komunikabide sozialetan modalitate bakoitzerako adieraziko diren lekuetan eta egunetan egingo da.

2. Ikastaroetan izena emateko, betekizun hauek bete behar dira:

a. Izena emateko orria betetzea.

b. Dagokion prezio publikoa ordaintzea.

Izen-emateek ez dute baliorik izango adierazitako bi betekizunak bete eta hori frogatu ezean.

3. Ikastaroak egiteko pertsona kopuru minimo batek eman beharko du izena. Urtero jakinaraziko da modalitate bakoitzerako kopuru minimo hori, eta jarduera hasi baino hiru egun lehenago kopuru hori bete ezean, ikastaroa ez da egingo. Izen-emateen kopuru minimo horretara ez iristekotan, beraz, bertan behera geratuko da ikastaroa eta berehala itzuliko zaie ordaindutako zenbatekoa ikastarorako izena eman dutenei.

4. Kalitate arrazoiak direla medio, parte hartzaileen kopuru maximo bat ere finkatuko da ikastaro bakoitzerako, zeina urtero jakinaraziko baita.

5. Kasuan kasuko ikastaroa ematen duen begiralea aldatzeak ez du eskubiderik ematen izena emateko ordaindu den zenbatekoa bueltan jasotzeko.

6. Ikastaroa ematen den bitartean erabiltzaileen batek baja eskatzen badu, ez du eskubiderik izango izen-ematearen prezioa itzul dakion.

ZAZPIGARREN TITULUA. ZEHAPEN-ARAU BIDEA

27. Artikulua. Arau-haustek

1. Erregelamendu honetan jasotako arauak ez betetzea arau-haustea da eta zehapena dakar. Horretarako, arintzat ala larritzat jotzen dira arau-haustek ordenantza honetan.

2. Arau-hauste larritzat joko dira hauek:

a. Erregelamendu honetako artikuluetan larritzat jo direnak.

b. Instalazioetako ekipamendua edo elementuak larriki eta nabarmenki narriatzea.

c. Hamabi hilabeteen arau-hauste arinengatik bi ebazpen irmo eta ondoriozko zigorrak jaso izana gutxienez.

3. Arau-hauste arinak dira ordenantza honetan larritzat jo ez diren ez-betetze guztiak.

28. Artikulua. Zehapenak. Zehapen-prozedura

1. Arau-testu hau betetzen ez den guztietan, instalazioen arduradunek ahalmena dute jokabide egokia ez duten pertsonak ohartarazteko, baita instalazioetatik kanporatzeko ere.

2. Artikulu honen 1. idatzi-zatian adierazitako gaitasunaz gain, zigor hauen bidez zehatuko dira arau-hauste arinak:

a. Instalazioetan sartzeko txartela kentzeko ohartarazpena edota,

b. 750,00 euro-rainoko isuna.

Ezarri beharreko zehapenari buruzko ebazpenean, aintzat hartu beharko da gainerako erabiltzaileen eskubideei, zerbitzuaren funtzionamenduari, segurtasunari eta apaintasun publikoari dagokienez eragindako asalduraren intentsitatea, baita ekipamendu zein instalazioei eragindako kalteen intentsitatea ere.

3. Artikulu honen 1. idatzi-zatian adierazitako gaitasunaz gain, zigor hauen bidez zehatuko dira arau-hauste larriak:

a. Instalazioetan sartzeko txartela kentzea, gehienez ere hamabi hilabetez zehatzeko ebazpen irmoa ematen den egunetik aurrera zenbatuta. Arau-hauste larriak errepikatzen badira urtebete naturalean, lau urtez ere ken dakioke instalazioetan sartzeko txartela arau-hausleari, edota,

b. 1.500,00 euro-rainoko isuna.

Ezarri beharreko zehapenari buruzko ebazpenean, aintzat hartu beharko da gainerako erabiltzaileen eskubideei, zerbitzuaren funtzionamenduari, segurtasunari eta apaintasun publikoari dagokienez eragindako asalduraren intentsitatea, baita ekipamendu zein instalazioei eragindako kalteen intentsitatea ere.

4. Zehapenak ezartzeko, dagokion zehapen-espedientea izapidetu beharko da administrazio-prozedurari buruzko legediarekin bat, alde batera utzita arlo zibilean eta, hala badagokio, zigor arloan bidera litezkeen ekintza judizialak.

5. Alkate-udalburuari dagokio arau-testu honen kariaz izapidetzen diren zehapen-espedienteen inguruko ebazpenak ematea.

6. Kasuan kasuko erantzuleak hartuko ditu bere gain instalazioak txarto erabiltzeagatik eragin dituen hausturak, material edo giltzen galerak, matxurak eta abarrak konpontzeko gastuak, alde batera utzita dagokion zehapen-espedientearen izapidetzea. Gutxienez, kalteak jaso dituzten elementuak leheneratzeko edo ordeztzeko ordaindu behar den zenbatekoa izango da kalte-ordaina.

ZORTZIGARRENTITULUA. AZKEN XEDAPENAK

29. Artikulua. Artikulu osagarriak

Instalazio jakin batzuk erabiltzeko, erregelamendu hau garatu egin ahalko da, gidalerro osagarriak erantsita.

30. Artikulua. Arau-testu honetan esanbidez aurreikusi gabeko gatazakerak ebaztea

Kasuan kasuko instalazioetako arduradunak ebatzi ahalko ditu arau-testu honetan esanbidez jaso gabeko kasu guztiak unean bertan. Kasu horietan, gertatutakoaren berri emateko txostena aurkeztuko du, hala badagokio, dagokion udal arloaren ebazpen osagarria eskatuta.

Laudio, 2021eko martxoaren 30a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE